

PAKISTAN-AFGANISTAN

Paxtuak zutik, kolonizatzaileek ezarritako mugaren bi aldeetan

Gerra eta miseria besterik ez dute ezagutu afganiarrek azken hamarkadotan. Britainiarrek, errusiarrek, estatu-batuarrek... porrot egin dute bertakoak mendeen hartzeko ahaleginean, baina sufrimendurik jasangaitzena afganiarrei beraiei tokatu zaie beti.

Orain, mugimendu bakezalea sortu berri dute paxtu etnia nagusi den Afganistango Helmand probintzian. Pakistanen, berriz, Pashtun Tahafuz izeneko mugimendua eratu da, mugaren bi aldeetan herriarrek jasaten duten egoera salatzeke. Paxtu Udaberria ikusten dute begirale batzuek, herriarrek isilik denbora gehiegi egin ondoren.

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Mugimendu bakezalea sortu dute paxtu etnia nagusi den Afganistanen, Helmand probintzian batez ere. Pakistanen, berriz, Pashtun Tahafuz izeneko mugimendua zutitu da, mugaren bi aldeetan herriarrek jasaten duten jazarpen egoera salatzeke. Paxtu Udaberria ikusten dute begirale batzuek.

Helmand probintzia Afganistango hegoaldean dago eta bertakoak dira taliban mugimenduaren buru asko. Ezaguna da oso munduan, bertako lo belar edo opio produkzioa ikaragarria delako. Herrialdeak bizi duen gatazkaren eraginez, ohikoak dira erasoak,

Hogeita hamar ekintzailek gose greba hasi zuten Afganistango Helmand probintzian paxtu etniakoek jasaten duten egoera salatzeke.
Noor MOHAMMAD | AFP

bonbardaketak, hildakoak, zaurituak... Baina martxoaren 23an izan zen leherketa batek aurreko erasoek eduki ez zuten eragina izan zuen: borroka libreko saio bat ikustera joan ziren lagunen aurkako bonbak hamalau hildako eta dozenaka zauritu utzi zituen Lashkar

Gah hiriburuan. Hurrengo egunean Helmandeko ehunka lagunek protesta kanpamentu bat antolatu zuten Afganistan-go Gobernuari zein talibanei bi eguneko su-etena eskatzeko. Hogeita hamar ekintzailek gose greba hasi zuten asmo berarekin. Mugimendu bakezalearen lehen urratsak izan ziren. Herriaren Mugimendua deitu zioten. Talibanen mende dagoen Musa Qala herri-
ra bakearen aldeko ekimena eramateko konpromisoa hartu zuten ekintzaileek.

Kabulgo agintariek ezetz esan zieten manifestariei, talibane egin zuten moduan, baino hazia jarrita zegoen. Helmand probintzian bertan eta Heraten zein Farahn herriarrek bat egin zuten protestaldiarekin. Paktia probintzian, berriz, beren ekitaldi propioa antolatu zuten, «gerraren kontrako herriarren protestaren salneurria isiltasunarena baino askoz ere txikiagoa» delakoan.

EMAKUMEAK PROTESTA EGITEN

«Afganistanek gehiago galdu du gehiengoak gerrari eta droga saltzaileei aurre ez egitea-gatik bestelako faktoreengatik baino», zioen manifestari bateg Interneten.

Nabarmentzekoa da Helmand oso probintzia kontserbadorea dela, baina kasu honetan emakumeek bat egin zutela bakearen aurkako ekimenarekin, beren kanpamentu propioa antolatuta.

Manifestariek bi aldeak es-tutu nahi dituzte. Qais Hashimi ekintzaileak “The New York Times” egunkariari esan zio-nez, talibanak zein Gobernu-a «potentzia atzerritarren txo-txongiloak dira: gure odola bukatu zen, gure malkoak lehortu dira. Ez dugu beste ezer





esango. Ez dugu ezer jango». Baraualdian esku hartzen ari ziren sei lagun erietxera eram zituzten. Azkenean, Helmand probintziako Ulema Kontseiluak (erlijio kontuetan jakintsuak), gose grebalariei baraualdiari amaiera emateko eskatu zien, bakearen aldeko manifestariekin batera lan egiteko konpromisoa hartzeaz gain.

Afganistanen askotan salatzzen da mugimendu politiko-

ak eta instituzioak kanpoko indarren mende daudela, haien «txotxongilo» direla. Baina Sayed Madadi analistararen arabera, horrelakorik ezin zaio leporatu Helmango mugimendu bakezaleari: «Helmango protestaldiak arrakasta lor dezake. Hala ez. Baina beste mugimenduetatik bereizten duen gauza bat badu: Kabul hiriburuan Mendebaldeko hezkuntza jaso duten eliteek antolatutako zerbait ez dela.

Apirilaren 8an, Peshawar hirian, ehunka mila lagun elkartu ziren Pashtun Tahafuz mugimenduak deituta.
Abdul MAJEED | AFP

Nekazaritza eremuetan bizi diren herritarrek zuzentzen dute; talibanekek beren zilegitasun osoa, baldin badute, hartzen duten lekuetako herritarrek».

MUGAREN BESTE ALDEAN

Mugaren beste aldean ere izan dira mugimenduak, nazkanazka egindako herritarrek egindakoak. Apirilaren 8an izan zen, Peshawar hirian, aipagarriena: ehunka mila lagun elkartu ziren Pashtun Ta-

hafuz mugimenduak deituta mugaren bi aldeetako paxtuek jasaten duten jazarpena salatzeko. Begirale batzuek idatzit dute Pakistanen inoiz egindako manifestazio jendetsuena izan zela igande hartakoa.

Mobilizazioa Pashtun Long March ekimenaren beste urrats bat izan zen: pasa den urtarrean sortu zuten, terrorismoaren aurkako borroka-aren aitzakiapean epaiketarik egin gabe segurtasun indarrek

INOIZ BAINO GEHIAGO KOSTATU ZAIE TALIBANEI ELKARRIZKETARI EZETZ ESATEA

Aste honetan esan dio ezetz taliban mugimenduaren zuzendaritzak Ashraf Ghani Afganistango presidenteari otsailean plazaratu zuen bake proposamenari.

Azken asteotako eraso baten ondorioz 18 urteko semea galdu zuen emakume batek talibaneiei bake ahalegin bat egiteko eskatu zien. Izan ere, paxtuen mugimendu bakezalea erabat neutrala bada ere, Ashraf

Ghanik orain bi hilabete talibaneiei egin zien bake proposamenak eragin du Omar mulak sortutako mugimendua manifestarien presiopean egotea azken bolada honetan, eta horrek esplik dezake aurten aurreko urteetan baino denbora gehiago behar izatea erantzuna emateko.

Otsailaren 28an Ghanik ezagutzera eman zuen dokumentuak talibanekek

konbentzitzeko moduko zenbait puntu zituen: Gobernua prest dago talibanekek alderdi politiko moduan hartzeko, matxinoek beren bulego politikoa zabaldu dezaten, horiei pasaporteak emateko, beren familiak leku batetik bestera eramateko erraztasunak emateko eta presoak askatzeko. Baita nazioarteko terrorista zerrendetatik taliban guztiak ken ditzaten ahalegintzeko ere.

Ghaniren proposamenari talibanekek emandako erantzuna ia bi hilabete geroago iritsi da, aurrekoetan ezezkoa berehalakoa izaten zenean. Aste honetan Donald Trumpen Gobernuari leporatu diote gerrarekin bukatzeko asmorik ez izatea. Baina talibanen artean bazegoen proposamenari baiezkota ematearen aldekorik, Rasoul mula horien artean. Haibatulla mulak ezezkoari eusten dio.



herritar bat hil ondoren. Beste bat esan beharko genuke, milaka paxtu hil baitituzte azken hamarkadotan joera ezberdinetako talde armatuek, uniformedunek barne.

Manzoor Pashteen 26 urteko Albaitaritza ikasleak sortu zuen Pashtun Tahafuz eta ur-tarrilaz geroztik milaka lagunek bat egin dute ekimenarekin. Pakistango agintariak paxtuak baztertuta dauzkatela diote, eta terrorismoaren aitzakiapean epaiketarik gabeko makina bat exekuzio egiten direla, beste horrenbeste lagun desagertutat jotzen diren bitartean. Gainera, Pakistango ipar-mendebaldeko egoera ja-sangaitza dela adierazten du-te, aipatu gerraren eraginez.

Joan den igandean 5.000 la-gun elkartu ziren Lahore hirian Pakistango Armadaren «taktika zikinak» salatze-ko, mobilizazioa debekatuta baze-go-en ere.

AGINTEA ETA MILITARRAK

«Uniformedunak dira hemen agintea dutenak. Hemen jene-

Militarren aurka hain garbi hitz egitea ez da batere ohikoa Pakistanen, herrialdeko Armadaren historiak isilik geratzea hobe dela erakusten baitie herritarrei

Pashteenek berak hurbileko 40 pertsona galdu ditu, lagunak batzuk, senideak besteak. Eta beste 30 desagertutat jo zituzten, talde armaturen batek bahitu ondoren

Manzoor Pashteen,
apirilaren 8an
Pakistango Peshawar
hirian egindako
mobilizazioan
elkartutakoei hizketan.
Abdul MAJEED | AFP

ralek hartzen dituzte eraba-kiak», esan zien elkartutakoei Manzoor Pashteenek.

Militarren aurka hain garbi hitz egitea ez da batere ohikoa Pakistanen, Armadaren historiak isilik geratzea hobe dela erakusten baitie herritarrei. Baina mugimendu berriak garbi esaten du militarrek la-gundu egin zietela Afganistan-dik zetozen talibanei, 2001ean AEBek herrialdea inbaditu zu-tenean. Horiek «taliban onak» omen ziren eta Armadak era-bili egin zituen Afganistanera itzuli eta erasoak egiteko. Aldi berean, beti ere ekintzaile pax-tuen arabera, Pakistango mili-tarrek «taliban gaiztoen» aur-kako borrokan segitzen zuten. Manzoor Pashteenek bere hi-

tzaldietan esaten duenez, pax-tuak bi su horien artean harra-patuta geratu dira.

Bi aldeek bortxatu dituzte herritarren giza eskubideak, biek bahitu eta hil dituzte. Bien jarduera armatuak eragin zuen ehunka mila lagunek ihes egitea. Pashteenek berak hurbileko 40 pertsona galdu ditu, lagunak batzuk, senideak besteak. Eta beste 30 desagertutat jo zituzten, talde arma-turen batek bahitu ondoren.

AEBEN «LAGUNTZA»

Pashtun Tahafuz mugimen-duaren diskurtsoak bat egiten du AEBek eta Afganistanek az-ken urteotan esaten dutenare-kin. Horregatik Washingtonek orain hiru hilabete Pakistani

ematen zion laguntza militarra etetea erabaki zuen, Afganistanen 14.000 soldadu dituen bitartean.

Pakistango agintariek ez dituzte onartzen akusazio horiek. «Ezin da esan hain modu gogorrean erasotzen ditugun terroristei laguntza ematen diegunik», esan dio France Presse agentziari Asif Ghafoor jeneral pakistandarrak. Salaketa egin duten manifestariak, berriz, «gazteak dira, gure aurkako indarrek erabilitako paxtuak». Hitzokin mobilizazioen atzean India dagoela aditzera eman nahi izan du jeneralak.

Albaitaritza ikasleak abian jarritako Pashtun Tahafuz mugimendua Islamabad hiriburuan sortu zen urtarrilean.

Une hartan 150 izenez osatutako zerrenda bat zuten agintariei emateko: segurtasun indarrek bahitutako lagunak ziren.

KARATXIKO MODELOA

Egun haietan Karatxi hirian Poliziak paxtu ikasle bat hil zuen, «muturreko» ekintzailea zelakoan. Hildakoa modelo izateko ikasten ari zen. Sare sozialetan erabiltzaile askok salatu zuten gertatutakoa, eta batek baino gehiagok hiriburuan egindako manifestazioan esku hartu zuten.

Manzoor Pashteenek dio une honetan 8.000 izenez osatutako zerrenda bat duela, desagerrarazitakoen izenez osatuta. Analistek diote ekimenari esker herritar askok

Armadari zioten beldurra atzean utzi eta kontatu egiten dutela sufritutako egoera. «Bere arrakastarik garrantzitsuena beldur giroa ezabatzea izanda», adierazi du Rafiullah Kakar analistak.

Belfast hiriko Queens Unibertsitateko Michael Semple irakasleak nabarmendu du Pashtun Tahafuz mugimenduak Armadaren aurkako salaketei pisua eman diela, guztiak bilduta.

Paxtu etniako ekintzaile bahezaleek esaten dute armarik ez dutela inoiz erabiliko eta joera horri eutsiko diotela ISIS Pakistango zerbitzu sekretuaren, Armadaren edo Estatu Islamikoaren jarduerara armatua- ren aurrean.

Paxtu etniako emakumeek ere esku hartu zuten Armadaren jarduerara gogor salatu zen Peshawar hiriko mobilizazioan.
Abdul MAJEED | AFP

50 MILIOI LAGUN, GERREN BIKTIMA

Hamarren bat milioi Afganistanen eta berrogei Pakistanen. Populazioaren %40 lehen herrialdean eta %20 bestean. Paxtu herria kolonizatzaile britainiarrek margotu zuten mugaren bi aldeetan bizi da eta gerrak ez du bakean uzten.

Beraiek bizi diren herrixketan indar armatu ugari ibiltzen da, eta bertakoentzat atxilotua eta bahitua izateko arriskua ikaragarria da.

Indar horiek ez dute epailearen agindurik behar herritar bat torturatu eta desagerrarazteko. Ezta hiltzeko ere. Pakistango zerbitzu sekretuek dituzten espetze ezkutuetan sartzen ez badituzte, AEBetako indarrek Kabul hiriburutik gertu duten Bagram basera eramango dituzte.

Paxtu etniako herritar bat bere eremua utzi eta beste nonbaitera joanez gero, Islamabad eta Kabuleko agintariek ikerketa egingo diote eta ia ezinezko izango zaio bere herrira itzultzea.

Pakistango agintariek Afganistango edo Indiako zerbitzu sekretuentzat lanean aritzea leporatuko diete atxilotutako herritarrei. Giza eskubiderik gabeko gizakiak dira eta ez daude isilik jarraitzeko prest.

